

Makina bat kontu
Haur hilkortasuna
inoiz baino
txikiagoa

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Zeanuriko
erroten ibilaldia

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Ilunpetik ateratzen

JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Jaberik gabeko arima. Horixe dateke Tinieblas González egiten ari den filmaren izenburua –*Alma sin dueño (ASD)*– euskaratzeko modurik egokiena. Ia osorik Bilboko Metroan filmatu ostean, efektu bereziak txertatzen dabilta orain, piztia eta guzti. Badirudi, hortaz, arima inori saldu nahi ez liokeen Tinieblasek pelikula luzea burutu ahal izango duela azkenik, saiakera antzuren bat edo beste abiatu ostean. Data zehatzagorik ezean, behintzat ziur esan daiteke datorren urtean eramango dutela aretoetara *ASD*, ekoiztetxeak *crossover* generokotzat aurkeztu duen lana. Nerabe beldurtuak nerabeen gozamenerako. Nahiz 34 urtekoak izan.



Tinieblas
González

UNAI BREA



MONIKA DEL VALLE/ ARGAZKI PRESS

ASDren filmaketa aurkeztu zen egunean, pelikulako protagonistekin batera.

«Inork ikusten ez duen ikusle ororentzako zine gehiegi dago»

OURENSEN JAIOA orain dela 34 urte, eta Alemaniara eramana hiru hilabete zituela, “baina arabar”. Laudiotar eta gasteiztar, zehazki. Urduña izan zuen, ordea, aurreneko bizilekua Euskal Herrian. Gazte nabarmendu zen zinegintzan zenbait film laburri esker; txalo adina sari jaso dute haren lanek. Tantaka emandako lanak, bidenabar. Bere lehenengo film luzeaz hitz egiteko aitzakiak elkartuta, bestelako gaiak jorratu ditugu lehenik.

Tineblas duzu benetako ponte-izena, ez da goitizena...

Hala da. Arazoren bat edo beste neukan gurasoekin; aitaren izen berbera neukan, eta hori saihesteko, aldatu egin nuen. Dena den, hiru urte neukanetik denek esaten zidaten *Tini*, eta lagun bat Tinieblas deitzen hasi zitzaidan. Hemeretzi urte nituela, izen hori hartu nuen lehengoaren orde. Jarrera punkya izan zen.

Oraindik baduzu jarrera hori, ezta?

Orain lasaiago nabil, 34 urterekin ez da izaten 19 zenitueneko jarrera bera, baina bai, egia esan...

Izena, estetika... zeure asmoak iragartzeko modua dira?

Nire izaera da. Erosotasunagatik eta ohitura-gatik janzen naiz honela, dagoeneko ezin dut neure burua beste inola irudikatu. Ez zait iruditzen janzteko era arrunt bakarra dagoenik; pentsamolde hori gizarte honetan dugun gauzarik tristeenetakoa da. Baina bestalde, seguruenik egia da janzkerak lagundu egiten duela nortasunaren berri ematen.

Janzteko moduaz ari gara. Berdin hitz egin genezake pentsatzekoaz?

Bai, nire pentsamoldeek antz handia dute ematen dudan irudiarekin. Irudi hori modu okerrean epaitzen ez bada behintzat... Janzkerak zerbait adierazteko modua da, ez zaitu berez pertsona okerragoa bihurtzen. Behar bada, nik gauzak adierazteko dudak era ozenegia da, eta horrexegatik, nire janzkera deigarriagoa.

Egin diezaiogun bistadizoa zure filmografiari. Orain arte, film laburrak baizik ez.

Bai, luze bat egiteko ahalegin bat barne, Andrés Vicente Gómezekin. Beharbada ez dut gauza gehiegi egin, baina horiek zaindu egin ditut, indarra eduki zezaten eta desberdinak izan zitezten saiatuz. Batik bat, desberdinak izan zitezten.

Izan ere, zure izena lantzean behin baino ez dela agertzen esan daiteke.

Bai. Niri, besterik ematen badu ere, itzalean egotea gustatzen zait. Garai lasaietan, idazten nagoenean... ez dut egur emateko gogorik izaten. Filmatzen nagoenean baino ez.

Askotan, zu aurkezteko espainar zineko *enfant terrible*, *bad boy* eta halako esamoldeak erabiltzen dira.

Uste dut *enfant terrible* Juanma Bajo Ulloa dela, eta ni *bad boy*, kar, kar...

Baina hori, promozio hutsa da, edo zer da?

Ez, zenbait zuzendariren benetako iraultza da. Eta ez dut uste *enfant terrible* neu naizenik; Juanma Bajo Ulloa dago aurrea; zuzendari handia eta nire begirunea duen laguna. Bera borrokatu da gehien gauza desberdinak egiteko, berak zabaldu du ate gehien, berak hartu makilkada gehien... Nik ez daukat neure burua *enfant terrible* zat. Zinea aldarrikatzen dutenetako beste bat baino ez naizela esango nuke.

Zine mota jakin bat?

Genero-zinea. Beharbada hori da ni gehien bereizten nauena: genero-zuzendaria naiz guztiz.

Zure lehenengo film luzea egiten zabilta azkenik. Komunikabideen aurrean Bilbon egindako aurkezpenean, borroka latza egin behar duzula adierazi zenuen.

"Ez dut uste gaztelaniaz sekula ezer filmatuko dudarik"

ASD ingelesez filmatu duzue...

Bai, pelikula nazioartean zabaltzeko batez ere. Zinean ingelesa da hizkuntzarik esportagarriena. Gaztelania baino askoz hobeto sartzen da belarrira. Gaztelania ez da zinerako ona, oso ona da literaturarako baina oso laua da, ez du musikaltasunik. Ingelesak, aldiz, bai. Nik ez dakit oso ondo ingelesez, baina pelikula guztiak gaztelaniaz ikusten ditut lehenbizi eta jatorrizko bertsioan ondoren, azpitoluekin. Eta konaturatu egiten naiz zein ondo ematen duten ingelesez, antzezpena hazi egiten da. *Alma sin dueño*, hemen, gaztelaniara eta euskarara bikoiztuko da, baina DVDan azpitoluludun jatorrizko bertsioa ikusi ahal izango da. Ni ez nago eroso gaztelaniaz filmatzen, menperatzen dudana hizkuntza bakarra izan arren. Dena dela, askok galdetu didate ea zergatik ez nuen gaztelaniaz filmatzen, baina inork ez dit esan, ordea, "noizko euskarazko bat". Euskaraz ez egitea uler badezakete, horrek sortzen dituen mugengatik, ulertu beharko lukete gaztelaniak mugak berdinak dituela beldurrezko eta fantasiarako zineari dagokionez. Nik ez dut uste gaztelaniaz sekula ezer filmatuko dudarik, baina badaukat gogoan proiektu bat, eta baliteke hori ingelesez eta euskaraz egitea.

Bai. Diru falta, bitarteko falta... Eta hala ere, pelikulari benetan gastatu dugunaren halako bost gastatu izanaren itxura eman nahian. Horretan suertea eduki dugu: Metroa, Bilbo hiria bera... Bestela, ezin izango genukeen pelikula egin. Madrigo metroan filmatzea, esaterako, 6.000 euro kostatzen da eguneko, lau orduko saioak eginez. Bilbon zazpi orduz jarduteko aukera eduki dugu, eta ezer ordaindu gabe, Metroaren eta Udaletxeko Bilbao Film Comission-en arteko akordioari esker.

Protagonistak nerabeak dira. Ikusleak ere hala izango dira?

Pelikularen berezko *targeta* 15 eta 25 urte bitartekoa izango da. Horrez gain, genero hori gus-tuko dutenek ikusteko modukoa izango da, adina edozein dutela ere. Genero-filma da batez ere. Nik hala diseinatu nuen, eta horretan zuzen nabilelakoan nago; *ikusle oroientzat* eginda dagoen eta inork ikusi nahi ez duen zine gehiegi dago, espainiar zinea batez ere. Ni generozalea naiz, eta beti pentsatu dut Japo-

Txapela Buruan
to ibili munduan

Narrika, 18. Donostia
telf. 943428299 www.txapelaburuan.com

ARGIA ere aktore

Ekaina amaieran egin zuten *Alma sin dueño* pelikularen aurkezpena komunikabideen aurrean. Hitzordua Basarrateko geltokian genuen, Santutxun, gaueko 23:15ean. Metro zerbitzua eten ostean, hain zuzen; lehenago ezin. Prentsaurrekoa amaituta, filmaren egileek eskaintza bitxia egin ziguten kazetarioi: ondoren filmatu beharreko eszenan parte hartzea. Egia esan, oso gutxi eman zion baiezkoa proposamenari —gau osoa han ematea zen baldintzetako bat—, horien artean geuk. Parte hartu zuten besteak antzele profesionalak ziren —eszenan esaldiren bat esan behar zutenak alegia—, edo lan-taldeko inoren lagunak, edo Interneten bidez Tinieblasek figuranteak behar zituela jakin eta bitan pentsatu gabe beren burua aurkeztu zutenak. Denetik dago-eta mundu berezi horretan.

“Zer egin beharko da? Antzezten jakin beharko da?”. Ez bada. Zer eta kazetariarena egitea egokitu zitzaigun. “A, hori erraza da, normal jokatu eta kito”. Ezta ere. Zegokigun eszenan, pelikuletan baizik agertzen ez diren kazetari erasokor horietakoak ginen, sekula lortzen ez duten adierazpen potoloaren bila saldoka eta elkar zapalduz joaten direnetakoa. Eta zinez, Basarraten izan zen zapaldukorik, baita geltokiko eskaileretan behera eroritakorik ere. Benetako kazetaritzarekin antz handirik ez, lanbide honen inguruko mitoak mito.

Zortzi aldiz egin genuen filmatu aurreko entsegua, ez gaizki ari ginelako, argia eta enkoadrea doitu behar zirelako baizik. Gero, benetako filmaketa hasi zen. Beste hirutan errepikatu zen hori, zuzendariaren gustuko lana gauzatu arte. Guztira hamaika bider egin genuen eskailera mekanikoetatik nasarako bidea, zitsu bizian eta elkarri ukondo-kolpeka. “Zinea egitea gogorra da gero!”, izan zen gehien errepikatutako leloa. Eskerrak afaltzekoa eman ziguten.

TINIEBLAS FILMS



Fikziozko kazetariak lanean, benetakoren bat ere tartean dela.

niako, Alemaniako, Frantziako... edozein herrialdetako zinea kontsumitzen badut, atzerrian ere genero horretako zinea kontsumituko dutela, edonon egingakoa izanagatik.

Targeta 25 urtera artekoa dela diozu, baina zuk aspaldi ganditu zenuen adin hori. Aspalditik zeneukan pelikula hau egiteko asmoa, ala?

Nik, zinea ikustean, adin horrekin egiten dut bat, 34 urte eduki arren. Ez ditut gustuko moralinadun filmak, egile-filmak, 30 eta 40 urte bitarteko jende moderno eta adi-

mentsuarentzat egindakoak; alegia, bizitzaren errealtatea zinean ikusi nahi omen duen jendearentzat. Izugarri gustatzen zaie pelikula batean ume txiroak agertzea, baina benetakok ikusten dituztenean aldendu egiten dira, beste alde batera begiratzen dute. Nik ez dut moralinarik eman nahi, nik jendearen gustukoa izango den pelikula bat egin nahi dut. Hori da abiapuntua. Batzuek artea egin nahi dute, baina ni ez naiz artista, ez daukat neure burua artistatzat, ni sortzailea naiz. Eta uste dut egiten dudana pelikulak jendearentzat izan behar duela. 15 eta 25 urte bitartekoentzat egiten badut, eta adin horretakoak aretoetara badoaz pelikula ikustera, nire lana ondo betea izango da. Bestela, porrota izango da.

Aurrestreinaldia Los Angelesen eta Bilbon egiteko asmoa duzue... Bilborekiko zorra kitatu nahi?

Ez da zorreratik, “etxean nago eta ondo nago” esateko modu bat da. Nire lan guztiak, bideo-klip bat izan ezik, Euskadin filmatu ditut. Hemen gustura egiten dut lan, jendea laguntzeko prest egoten da beti. Zergatik beti Madrilera joan behar, zergatik beti irentsi? Laguntza jasotzen jarraitzen badut, Euskadin filmatuko ditut neure pelikula guztiak, ahal dela. Nahiz eta honako hau Madrilen girotuta dagoen, hara. ■

Jantziak, osagarriak...

Istilu

615 73 21 12

Deitu eta katalogoa eskatu !!!

www.istilu.com